| Bertsolaritzaren ondare bilketa, katalogazio eta antolaketarako berariazko dokumentazio sistema eta datu basearen garapenean dihardu XDZk. Horri esker, autoritateen kontrolaren eta datu base erlazionalen bidez erabiltzaileak bilatzea, antolatzea eta iragaztea errazten du. Nafarroako bertsolaritzaren ondarearen bilaketa, antolaketa, katalogazioa eta gizarteratzea, modu antolatuan eta sailkatuan egiteko aukera eskaintzen duen datu basea da. | XDZ ha desarrollado y está desarrollando un sistema documental y base de datos propio adecuado para la recopilación, catalogación y organización del patrimonio del bertsolarismo. Esto facilita la búsqueda, organización y acceso a los datos por parte del usuario a través del control de autoridades y las bases de datos relacionales. Se trata de una base de datos de fácil acceso que permite realizar de forma organizada y clasificada la catalogación y consulta del patrimonio del bertsolarismo en Navarra. |
| **2.3. Nafarroako bertsolaritzari buruzko ikerketa proiekturako sari deialdia:** | **2.3. Convocatoria de premio para un proyecto de investigación sobre el bertsolarismo en Navarra:** |
| Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteak Nafarroako bertsolaritzari buruzko ikerketa proiektuetarako sarien deialdia eginen du. Aurkeztutako proiektuen artean bat aukeratu eta dirulaguntza emanen da, gero lana urtebetean egin ahal izateko. EHBE arduratuko da ikerketa proiekturako saria esleitzeko epaimahaia | Euskal Herriko Bertsozale Elkartea realizará una convocatoria de un premio para proyectos de investigación relacionados con el bertsolarismo en Navarra. Entre los proyectos presentados se seleccionará uno y se subvencionará para que posteriormente pueda realizar el trabajo en el plazo de un año. EHBE se encargará de la composición del |

| | |
|---|---|
| osatzeaz, aurkeztutako lanak baloratzeaz eta ikerketa proiektua aukeratzeaz. | jurado para la adjudicación del premio para el proyecto de investigación, la valoración de los trabajos presentados y la selección. |
| Hitzarmenaren justifikaziorako, aukeratutako ikerketa proiektua jasotzen duen txostena aurkeztuko da, ez ikerketa bera. Honekin batera, hautatutako ikerketa proiektuaren egileari eginiko ordainketa agiriak aurkeztuko dira. | Para la justificación del convenio se presentará el proyecto de investigación seleccionado, no el estudio propiamente dicho. Junto al proyecto se presentarán los justificantes del pago al autor o autora del proyecto de investigación seleccionado. |
| Urtebeteko epean Ikerketa proiektua amaitzean, hau Euskarabideari aurkeztuko zaio. | Al finalizar el proyecto de investigación en el plazo de un año, éste se presentará a Euskarabidea. |
| **G) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATU:** | **G) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN:** |
| Dirulaguntzaren justifikazioa, 11/2005 Foru Legeak, azaroaren 9koak, Dirulaguntzen gainekoak ezarritako epeetan eginen da ondoren zehazten diren dokumentuen bidez: | La justificación de la subvención, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones, se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan: |
| a) Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez aurkeztuko da, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari zuzenduta. Dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2026ko azaroaren 20a izanen da. | a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra, y dirigida a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. El último día para la presentación de dichos documentos será el 20 de noviembre de 2026. |
| b) Langile gastuak honako egiaztagiri hauen bidez justifikatuko dira: | b) La justificación de los gastos de personal se acreditará mediante la presentación de los siguientes documentos: |
| • Dirulaguntza honen xede den proiektuari loturiko langileen zerrenda eta nominak. Bertan, hala badagokio, egotzitako lanaldiaren ehunekoa adieraziko da, proiektuari eskainitako denboraren arabera. | • Relación nominal y nóminas de las personas trabajadoras imputadas a la presente subvención indicando, en su caso, el porcentaje de imputación de su jornada en función de su dedicación al proyecto. |
| • Langile horien Gizarte Segurantzako kotizazioei dagozkien egiaztagiriak. | • Justificantes correspondientes a las cotizaciones de la Seguridad Social de estas personas. |
| • Nominen eta gizarte-segurantzaren ordainagiriak, bai eta PFEZ atxikipenenak ere. | • Justificantes de pago de las nóminas y la seguridad social, así como de las retenciones por IRPF. |

| | |
|---|---|
| c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak atxikiko dira, bai eta ordainketa agiriak ere. | c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago. |
| d) Langile gastuak eta bestelako gastu zuzenak zerrendatuta agertuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. | d) Tanto los gastos de personal como los gastos directos deberán presentarse mediante una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. |
| e) Balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZa) gastua ez da konputatuko, zerga berreskuratu ezin duten entitateetan izan ezik. | e) No se computará el gasto del impuesto sobre el valor añadido (IVA), salvo en el caso de las entidades que no puedan recuperarlo. |
| f) Proiektuaren saria justifikatzeko, transferentziaren ziurtagiria aurkeztu beharko da; honekin batera txosten bat aurkeztu beharko da, zeinek biltzen dituen epaimahaiko kideen aktak, lehiaketaren deialdia edo Euskarabideak eskatzen duen beste edozein agirirekin batera. | f) Para la justificación del premio del proyecto se deberá presentar el certificado de la transferencia; junto con el informe que reúna las actas de los miembros del tribunal, la convocatoria del concurso o cualquier otra documentación relacionada que solicite Euskarabidea. |
| Egindako gastutzat joko da, oro har, justifikazio epea bukatu baino lehen benetan ordaindu dena (azaroaren 20a). Aurrekoa gorabehera, ez da eskatuko frogagiriak aurkezteko data baino lehen ordaindu ezin diren finantza, tributu eta gizarte-segurantzaren gastuak benetan ordainduak izatea, horren arrazoia baldin bada likidatzeko borondatezko aldia oraindik irekita ez egotea. | Con carácter general, se entenderá por gasto realizado el pagado antes de la finalización del plazo de justificación (20 de noviembre). No obstante, no se exigirá que los gastos financieros, tributarios y de seguridad social que no puedan abonarse con anterioridad a la fecha de presentación de los justificantes hayan sido pagados por causa de que el período voluntario de liquidación no esté aún abierto. |
| Faktura eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira, BEZ edo bestelako zergak barne hartzen dutelarik. Jarduera zergen ordainketatik salbuetsirik egonen balitz, hala adieraziko da. | Las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la relación de gastos contemplando, en su caso, IVA o cualquier otro impuesto. En aquellos casos en que la actividad estuviera exenta de impuestos, así se hará constar. |
| Orobat, diruz lagundutako egitasmoak bukatu ondoren eta dirulaguntza kobratu ahal izateko, Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteak 2026ko | Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, y con el fin de proceder al cobro de la subvención, Euskal Herriko Bertsozaleen |

| | |
|---|---|
| azaroaren 20rako egitasmoaren oroitidazkia aurkeztuko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari, , ezarritako helburuak bete direla ikusteko. | Elkartea presentará a Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, para el 20 de noviembre de 2026, la memoria proyecto, que incluirá la valoración del cumplimiento de los objetivos previstos. |
| Hitzarmen honen I. eranskinean zehaztutako atal bakoitzari ezarritako zenbatekoak ez dira lotesleak izango. Hau da, diruz lagundutako jardueraren baten gastua hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, soberan gelditutako zenbatekoa eranskinean zehaztutako beste atal batzuetara mugitu ahal izanen da, betiere gastuak dagozkion ordainagiriekin egiaztatzen badira, emandako dirulaguntzaren muga gainditu gabe eta laguntzaren helburuak bete badira. | Los importes establecidos para cada apartado subvencionable en el anexo I del presente convenio no tendrán carácter vinculante, de forma que, si el coste de alguna de las actividades subvencionadas resultara inferior al previsto inicialmente, el exceso de cuantía presupuestado podrá aplicarse a otros de los apartados contemplados, siempre y cuando los costes se avalen con los correspondientes documentos de pago, sin superar, en ningún caso, el límite de la subvención concedida y se hayan cumplido los objetivos y finalidad de la ayuda. |
| Baldin gastuen azkeneko justifikazioa ez bada onartutako aurrekontuaren guztirako zenbatekoa adina, baina, hala ere, onuradunak frogatzen badu dirulaguntzaren xedea benetan bete duela eta superabitik ez dela izan, ez da ulertuko onuradunak ez duela bete dirulaguntza justifikatzearen betebeharra. Dirulaguntzak ematen dituen organoak erabakiko du, nolanahi ere, ea gastuen justifikazioa bateragarria den deialdiaren xedea benetan gauzatzearekin. | En el caso de que la justificación final del gasto no alcance el importe total del presupuesto aceptado, pero a pesar de ello, se acredite por el beneficiario el cumplimiento efectivo del objeto de la subvención y la no existencia de superávit, no se considerará que el beneficiario incumple con la obligación de justificación de la subvención. El órgano concedente valorará, en todo caso, si la justificación de los gastos es compatible con la ejecución efectiva del objeto. |
| Deialdi honen baitan diruz laguntzen den helburua bete dela ulertzeko, egiaztatu egin behar da ezen proposatutako jarduera bere osotasunean gauzatu dela; horrela izan ezean, jasoko den zenbatekoa gutxitu eginen da, gauzatze mailarekiko modu proportzionalean gutxitu ere. | Se entenderá que el objeto de subvención de la convocatoria está cumplido cuando se haya acreditado, la ejecución de la totalidad de la actividad propuesta. En caso contrario, la cantidad a percibir se aminorará proporcionalmente a dicha ejecución. |
| **H) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA** | **H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN** |
| Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da 2026ko abenduaren 31a baino lehenago; 40.000 € bitarteko gastuak ordaindu direla justifikatu ondotik. Emandako dirulaguntza justifikatutako kopuruetara egokituko da, emandakoa urteko dirulaguntzaren erabateko zenbatekoa gainditu gabe. | El abono de la subvención se realizará en un único plazo antes del 31 de diciembre de 2026, tras la justificación del pago de los gastos realizados hasta 40.000 €. El importe a abonar dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada sin que pueda superar el importe total de la subvención anual concedida. |

| I) GARDENTASUNA: | I) TRANSPARENCIA: |
| --- | --- |
| 1. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien % 20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro. | 1. Las entidades privadas a las que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20 % del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros. |
| Horretarako, II. eranskinean jasotzen den estekaren bidez aurkeztu beharko da adierazpena. Aurkeztu beharreko dokumentuen ereduak tramitean bertan eskuratzen ahal dira. | La declaración deberá presentarse a través del enlace recogido en el anexo II, que, asimismo, permitirá el acceso a los modelos de la documentación que sea necesario presentar. |
| 2. Onuradun guztiek aitortu behar dute zer egoeratan dauden gardentasunaren betebeharraren inguruan. Onuradunak gardentasun betebeharra bete behar ez badu hirugarren puntuan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direlako, izapidean bertan (II. eranskina) adieraztea nahikoa izanen da. | 2. Todas las entidades beneficiarias deberán declarar si están sujetas o no a transparencia. En el caso de que la entidad no se encuentre sujeta a la obligación de transparencia al no darse los supuestos previstos en el tercer apartado, será suficiente con comunicarlo en ese mismo trámite (Anexo II). |
| 3. Lehenengo atalean ezarritako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua hartuko da kontuan ondorio horietarako, ez guztizko batura. Negozio zifra honako hauetako txikiena izanen da: | 3. A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el primer apartado, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes: |
| a) Aurreko urteko negozio-zifra. | a) La cifra de negocio del año anterior. |

| | |
|---|---|
| b) Hala bada, dirulaguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako negozio zifra. | b) En su caso, la cifra de negocio aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención. |
| 4. Aipatu diren inguruabarrak gertatzeagatik gardentasun betebeharrak dituzten entitate onuradunek jarraian adierazten den informazioa eman beharko dute hilabeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita: | 4. Las entidades beneficiarias de subvenciones que se encuentren sujetas a la obligación de transparencia al concurrir los supuestos previstos, deberán comunicar en el plazo de un mes contado desde la notificación de la resolución de concesión la información que se relaciona a continuación: |
| a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera. | a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad. |
| b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda. | b) Relación de los cargos que integran dichos órganos. |
| c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa. | c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será la que figure en sus presupuestos o plan económico-financiero. |
| d) Gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea. | d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección de la entidad. |
| e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat. | e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria. |
| Informazio hori II. eranskinean zehaztutako estekaren bidez aurkeztuko zaio Nafarroako Gobernuari. Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 5.1 artikuluarekin bat, igorritako dokumentuetan ezin izanen da inolako datu pertsonalik agertu (sinadura elektronikorik edo eskuzkorik, NAN zenbakirik, helbiderik…). | La información señalada deberá ser presentada al Gobierno de Navarra mediante el enlace recogido en el anexo II. Asimismo, de acuerdo con el artículo 5.1. del Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, los documentos presentados no deben contener ningún tipo de dato personal (firma electrónica o manuscrita, DNI, dirección…). |
| Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, | En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron |

CSV: **B59C3809BF73299E**
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx
Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-06 14:16:28

| | |
|---|---|
| gardentasunaren izapidean bertan, entitateak identifikatu beharko du zer dirulaguntzatan eta zer espediente zenbakirekin aurkeztu zuen informazioa. | inicialmente. Para ello, en el mismo trámite de transparencia, la entidad deberá identificar en qué convocatoria y con qué número de expediente presentó la información. |
| Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz | El incumplimiento de esta obligación impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones. |
| Aurrekoa galarazi gabe, onuradun guztiak behartuak daude unitate kudeatzaileari behar den informazio guztia ematera, aurretiazko errekerimendua eginda eta hamar eguneko epean, frogatzeko betetzen direla maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen II. tituluan jasotako gardentasun betebeharrak (aipatutako foru lege horrek hizpide ditu gardentasuna, informazio publikoa eskuratzea eta gobernu ona). | Sin perjuicio de lo anterior, todos los beneficiarios estarán obligados a suministrar a la unidad gestora, previo requerimiento y en un plazo de diez días, toda la información necesaria para el cumplimiento por ésta de las obligaciones de transparencia previstas en el Título II de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. |
| Errekerimenduan emandako epea bukatzen bada eskatutakoa bete gabe, hertsapen isunak ezartzea erabakitzen ahalko da, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, interesdunari ohartarazpena egin ondoren eta entzunaldia emanda. Isuna hamabost egunetik behin errepikatuko da, errekerimendua bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izanen dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan. | Una vez transcurrido el plazo conferido en el requerimiento sin que el mismo hubiera sido atendido se podrá acordar, previo apercibimiento y audiencia al interesado, la imposición de multas coercitivas de 500 a 5.000 euros. La multa será reiterada por períodos de quince días hasta el cumplimiento. El total de la multa no podrá exceder del cinco por ciento del importe de la subvención. Para la determinación del importe, se atenderá a la gravedad del incumplimiento y al principio de proporcionalidad. |
| **J) AZPIKONTRATAZIOA** | **J) SUBCONTRATACIÓN** |
| Erakunde onuradunak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango ditu diruz lagundutako jarduerak, osorik edo zati batean, eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 26. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu. | La entidad beneficiaria podrá subcontratar con terceros, de manera total o parcial, las actividades subvencionadas, quedando sometida al cumplimiento de los requisitos previstos en el artículo 26 de la Ley Foral de Subvenciones. |

| | |
|---|---|
| **K) EZ BETETZEAK, ITZULKETAK ETA ARAU-HAUESTAK:**<br><br>a) Ez-betetze arintzat joko dira irregulartasun formalei dagozkienak; halakoetan, dirua partez itzuli beharra egonen da, edo ordainketa partzialik ez egitea, ez-betetzearen muntaren arabera. Ez-betetze astuntzat joko dira, berriz, funtsezko kontuei dagozkienak; halakoetan, arau orokor gisa, dirua osorik itzuli beharko da, edo ez da deus ere ordainduko. Batean nahiz bestean berandutze-interesak eskatzen ahalko dira, azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako kasuetan. Unitate kudeatzaileak mailakatzea egiteko komenigarriak iruditzen zaizkion irizpideak ezartzen ahalko.<br><br>b) Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV. tituluan xedatutakoa aplikatuko da.<br><br><br>**K) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA:**<br><br>Onuradunak emandako dirulaguntzaren publizitate egokia egin beharko du dirulaguntza onartzen duen unetik aurrera.. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez. Aipamen hau Nafarroako Gobernuko sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat eginen da eta jarduera zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.<br><br>Euskarabidearekin partekatuko da hemen sinatutakoarekin zerikusia duten ekitaldietatik ateratzen den informazioa eta material grafikoa.<br><br>**L) DIRULAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA:**<br><br>Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako edo beste batendako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabideari horren berri eman | **K) INCUMPLIMIENTOS, REINTEGROS E INFRACCIONES:**<br><br>a) Se considerarán incumplimientos leves los referidos a irregularidades formales, en cuyo caso procederán reintegros o ausencia de abonos parciales proporcionales a dichos incumplimientos, e incumplimientos graves los referidos a cuestiones sustantivas, en cuyo caso, la regla general será el reintegro o ausencia de abono total, sin perjuicio en ambos casos de la exigencia de interés de demora en los supuestos establecidos en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre. La unidad gestora podrá establecer los criterios de graduación que estime oportunos.<br><br>b) En materia de infracciones y sanciones se estará a lo dispuesto en el título IV de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.<br><br><br>**K) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCION:**<br><br>La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.<br><br>Se compartirá con Euskarabidea la información y el material gráfico resultante de los actos que se lleven a cabo relacionados con lo aquí firmado.<br><br>**L) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN:**<br><br>Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad u otras, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con |

CSV: **B59C3809BF73299E**
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta: https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx
Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-06 14:16:28

| | |
|---|---|
| beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.<br><br>Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.<br><br>Iruñean, sinadura digitalaren egunean | anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.<br><br>No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.<br><br>En Pamplona, a la fecha de la firma digital |
| Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria /<br>La consejera del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera:<br><br>Ana Ollo Hualde | Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartearen izenean /<br>En representación de Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartea:<br><br>Aritz Zerain Miner |

CSV: **B59C3809BF73299E**
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx
Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-06 14:16:28

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua

**EUSKARABIDEAREN ETA EUSKAL HERRIKO BERTSOZALEEN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA (2026)**

| EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEAREN AURREKONTUA 2026 | |
|---|---|
| **1. PERTSONAL GASTUAK** | |
| **1.1. Ikerketa arduradunen dedikazioa % 17,92** | **11.800 €** |
| Ikerketa lanaren koordinazioa. (EHBE Ikerkuntza eragilea % 6,07) | 4.000 € |
| Ikerketa lanaren koordinazioa. (Nafarroako Bertsozale Elkartea koord. % 3,04): | 2.000 € |
| Biografia atala idaztea eta eguneratzea, ikerketaren atal gisara (EHBE ikerketa koord. % 1,52) | 1.000 € |
| Testigantzen dokumentazioa biltzea, ikerketaren atal gisara (EHBE ikerketa koord. % 7,29) | 4.800 € |
| **1.2. Dokumentazio arduradunaren dedikazioaren % 14,40** | **9.200 €** |
| Bertso ekitaldien informazioaren bilketa eta dokumentazioaren koordinazioa, ikerketaren parte gisara (% 5,79) | 3.700 € |
| Ekitaldien grabazioen koordinazioa (% 5,48) | 3.500 € |
| Ikerketarako urteko bildumaren prestaketa (% 3,13) | 2.000 € |
| **2. IKERKETA LANERAKO GASTUAK (Pertsonala, kanpo zerbitzuak eta ikerketa kontratua)** | |
| **2.1. Ikerketarako dokumentazio bilketa % 16,81** | **10.500 €** |
| Bilketa eta dokumentazio irizpideen formazioa eta zuzenketa (EHBEko ikerketa arduradunaren.% 2,44): | 1.610 € |
| Bat-bateko bertsoen transkripzioa eta zuzenketa, ikerketaren parte gisara: (EHBEko Ikerketa arduradunaren % 7,29) | 4.800 € |
| Ikerketarako agenda zabaltzea (XDZko teknikariaren % 2,94) | 1.700 € |
| Bestelako dokumentuen bilketa eta antolaketa: argazki, artxibo, kartel... (XDZko teknikaria % 4,14) | 2.390 € |
| **2.2. Kanpo zerbitzuak:** | **4.500 €** |
| Bdb.bertsozale.eus sistemaren dokumentazio sistema garatzea (ikerketa atariaren prestaketak, mantentzea eta garatze-lanak) | 4.500 € |
| **2.3.Nafarroako bertsolaritzari buruzko Ikerketa proiekturako Sari deialdia:** | **4.000 €** |
| **GUZTIRA** | **40.000 €** |

CSV: **B59C3809BF73299E**
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx
Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-06 14:16:28

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua

**CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA Y EUSKAL HERRIKO BERTSOZALEEN ELKARTEA (2026)**

| PRESUPUESTO DE EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA 2026 | |
|---|---|
| **1. GASTOS DE PERSONAL** | |
| **1.1. Dedicación responsable de investigación 17,92 %** | **11.800 €** |
| Coordinación del trabajo de investigación (EHBE investigación operativa 6,07 %) | 4.000 € |
| Coordinación del trabajo de investigación (Coord. Nafarroako Bertsozale Elkartea 3,04 %) | 2.000 € |
| Redacción y actualización del apartado de Biografía como parte de la investigación (Coord. Investigación EHBE 1,52 %) | 1.000 € |
| Recopilación de documentación de testimonios como parte de la investigación (coord. EHBE investigación 7,29 %) | 4.800 € |
| **1.2. Dedicación del responsable de documentación 14,40 %** | **9.200 €** |
| Coordinación de la recopilación y documentación de eventos de bertsolarismo como parte de la investigación (5,79 %) | 3.700 € |
| Coordinación de grabaciones de eventos de bertsolarismo (5,48 %) | 3.500 € |
| Preparación de la colección anual de investigación (3,13 %) | 2.000 € |
| **2. GASTOS PARA LOS TRABAJOS DE INVESTIGACIÓN (Personal, servicios externos y contrato de investigación)** | |
| **2.1. Recopilación documental para investigación 16,81 %** | **10.500 €** |
| Trabajos de formación y corrección de criterios de recogida y documentación (responsable de investigación de EHBE.2,44 %) | 1.610 € |
| Transcripción y corrección de los bertsos improvisados, como parte de la investigación: (responsable de investigación de EHBE 7,29 %) | 4.800 € |
| Difusión de la agenda de investigación (técnico XDZ 2,94 %) | 1.700 € |
| Recogida y organización de otros documentos:fotografías, archivos, carteles... (Técnico XDZ 4,14 %) | 2.390 € |
| **2.2. Servicios externos** | **4.500 €** |
| Desarrollo e implantación del sistema de documentación bdb.bertsozale.eus (preparación, mantenimiento y desarrollo del portal de investigación) | 4.500 € |
| **2.3. Convocatoria de premio para un proyecto de investigación sobre el bertsolarismo en Navarra** | **4.000 €** |
| **TOTAL** | **40.000 €** |

CSV: **B59C3809BF73299E**
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx
Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-06 14:16:28

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

*II. ERANSKINA / ANEXO II*

**Gardentasuna betebeharra / Obligación de transparencia**

**Gardentasun betebeharra ez dutenek bete beharreko ziurtagiria aurkezteko / Presentación de la declaración de no estar sujeto a la obligación de transparencia.**

CSV: **B59C3809BF73299E**
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx
Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-06 14:16:28